



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 126/2023 FORU DEKRETUA, abuztuaren 23koa, Eskola Kirola programak 2023/2024 denboraldian izango duen arautegia ebazten duena.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak bere helburuen artean du denentzako kirola sustatzea, bereziki eskola-umeen artean. Zehazki, helburu estrategikoetarikoa bat da kirol-aztura sorraraztea eskola-umeengan, eta horretarako guztiz beharrezkoa da ikastetxeek eta kirol-klubek laguntzea ahalik eta kirol-eskaintzarik zabalena eta onena —iraunkorra eskolaldi osoan— emateko orduan, gure umeen gertuko ingurune batean.

Alor horretan kokatzen da foru-dekretu hau, zeinak ezartzen baitu Bizkaiko Eskola Kirola programan 2023/2024 denboraldian sartutako kirol-jarduerak erregulatzeko araudia, eta jasotzen baititu zenbait kirol-ibilbide, bakoitzak hainbat jarduera dituela.

Proposatutako xedapen orokorraren gaiari dagokion eskumena Bizkaiko Foru Aldundiarena da, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikulua araberak. Bertan dio Kondaira-Lurraldeei dagokiela Bateango Erakundeek emandako honako gaien artean osabideratu eta egipideratzea kirolaren sustapena, eta eskola-kirolentzako eta guztien kirolarentzako egitarauak.

Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak 75.1 artikuluan dio eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programak lurralde historikoetako foru-organoei onartuko dituztela urtero, eta bideratuta egongo direla prestakuntza integralera, nortasunaren garapen orekatura eta geroago jarduera fisikoa eta kirola egiten jarraitzea ahalbidetuko duten baldintza fisikoak eta osasun-baldintzak lortzera.

Eusko Jaurlaritzak 2008ko uztailaren 1ean emaniko 125/2008 Dekretuak, Eskolako Kirolari buruzkoak, 6. artikuluan dio eskola-umeen bilakabide fisiko, psikologiko, intelektual eta sozialen eritimoaren arabera, eskolako kirolaren jarduerak kirolari ekiteko hasierako prozesua bultzatuko dute. Horrekin, haurrak hezkuntza balio positiboak —kirol lehiaketaren balio espezifikoak barne— bermatzen dituzten inguruneetan garatzeko prozesua osatuko da, kirol modalitate ugariaren berri jasotzea sustatuko da, kirol ohiturak sortzea, bizimodu osasungarri batez hezteak, eta modalitate ezberdinetako kirolariak eta kirol ikusleak prestatzea. Eskolako kirolaren barruan, gainera, errendimenduan eta helburuetan gora egitea xede duen kirol praktikari ekitea bultzatuko da, haien gaitasun eta jokamoldeengatik hauteman eta aukeratzen diren balizko talentu eta promesak beharrezko teknifikazio-baldintza egokiez baliatu daitezkeen. Errendimenduko kirolaren praktika bultzatzen duen ekimen honek haurraren garapen harmoniatsua eta integrala errespetatu beharko du, alegia, haren garapen fisiko, intelektual zein soziala.

Horrekin batera, kirol jarduera horren helburu nagusiaren arabera, hiru kirol ibilbide ezberdin ezartzen dira: Parte Hartzekoa, Errendimenduari Ekitekoa, eta Kirol Talentuak eta Promesak Identifikatzekoa.

Gure Lurralde Historikoaren eremuan, eskuduntza hori Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari dagokio, zeinari, kontuan harturik zer xedatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita Sail horren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua, besteak beste eskumen hauek



baitagozki: Kirola eta kirol espiritua sustatzea, kirola egiteko aukerak ematea (batez ere, umeei eta gazteei) belaunaldien arteko kirola bideratzea, eta laguntza ematea kirolerako gaitasun nabarmena agertzen duten kirolariei.

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datzekien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura erregulatzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea.

Beste alde batetik, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egitea eta ondore horretarako urte asko daramatza arlo horretan lanean. Ildo horretatik, dekretu honek genero-ikuspegia txertatzen du, bai hura lantzean, bai aplikatzean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan adierazten den bezala. Era berean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Dekretu horren bidez, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.
2. Euskara, Kultura eta Kirol sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
5. Legezketasunari buruzko txostena.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautespen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17, 39 k) eta 64.3 artikuluetan ezarritakoa ikusirik, eta Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak emandako eskumenez baliatuta, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Aldundiak eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.—*Bizkaiko Eskola Kirola programak 2023/2024 denboraldian izango duen arautegia onestea*

Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan 2023/2024 denboraldirako jasota dauden kirol jardueren arautegia onesten da.



AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa. — Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza

Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, foru dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion diru-laguntzak ematea.

Amaierako Bigarren Xedapena. — Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2023ko abuztuaren 23an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA



BIZKAIKO ESKOLA-KIROLA PROGRAMAN 2023/2024 DENBORALDIAN SARTUTAKO KIROL-JARDUERAK ERREGULATZEKO ARAUDIA

I.TITULUA

XEDAPEN AMANKOMUNAK

1. oinarria.— *Xedea*

Foru dekretu honen xedea da arauak ezartzea, Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan 2023/2024 denboraldirako jasota dauden kirol jarduerak arautzeko.

2. oinarria.— *Eskumenak*

1. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio eskoletako lehiaketak antolatu, kalifikatu eta baimentzea.

2. Ikastetxeek eta guraso elkarteek, klub eta kirol elkarteek, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak edo haien udal erakunde autonomoak edo kirolen udal fundazio publikoek eta Bizkaiko kirol federazioek, lehiaketak eta kirol jarduerak antolatu ahalko dituzte, honako arlo hauen arabera:

- Ikastetxeek eta guraso elkarteek: euren ikasleentzako lehiaketak eta kirol jarduerak.
- Klub eta kirol elkarteak: euren kirolariei zuzendutako lehiaketa eta kirol jarduerak.
- Bizkaiko kirol federazioek: kadete kategoriako lehiaketak eta kirol jarduerak; hau da, 2023/2024 denboraldia bukatzen den urtean 15 edo 16 urte egingo dituzten ikasleentzako lehiaketak izango dira, eta dagokien federazio-lizentzia izan beharko dute.
- Udalek edo haien udal erakunde autonomoek edo kirolen udal fundazio publikoek: euren lurralde eremuko ikastetxe eta ikasleentzako lehiaketak eta kirol jarduerak.

3. oinarria.— *Bizkaiko Eskola Kirola programa*

1. Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan jasotako jarduera guztiak honako kirol ibilbide hauetakoren baten barruan daude:

- Kirolean parte hartzea. Ibilbidearen helburu nagusia da aukera ematea eskola-ikasle guztiei kirol eta jarduera fisiko ezberdinetan aritzeko. Horrela, kirolerako ohitura eta bizimodu osasungarria eurenganatzten lagundu nahi zaie.
- Errendimenduari ekitea. Ibilbidearen helburu nagusia da, hala egin nahi duten umeei, erraztasunak ematea errendimenduan eta helburuetan gora egitea xede duen kirol batean hasteko.
- Kirol talentuak eta promesak identifikatzea. Ibilbidearen helburu nagusia da haien gaitasun eta jokamoldeengatik kirol talentu edo promesa izan daitezkeela uste den eskola-ikasleak identifikatzea, aukeratzea eta garatzea.

2. Jarduera bakoitzaren helburu nagusiaren arabera, ibilbide batean edo bestean sartuko dira jarduerok. Bizkaiko Eskola Kirolako programak honako jarduera hauek jaso ahalko ditu 2023/2024 denboraldian zehar:

- Lehiaketa jarduerak hiru motatan banatzen dira, kirol mailaren eta helburuen arabera: parte hartzekoak, errendimenduari ekitekoak eta lehiaketa murriztuak.
 - Parte hartzeko lehiaketak, izenak berak adierazten duen legez, edonork parte hartzekoak dira, eta ez da inolako hautaketarik egingo. Horien helburua da kirol modalitatea hobetzea eta jarduera fisikoa egiteko ohitura hartzea.
 - Errendimenduari ekiteko jarduerak lehiaketak dira, errendimendu jakin bat lortzeko helburua dutenak, parte-hartzaileak lehiaketa federatuetan sartu ahal izan daitezen, eskola garaia amaitu ostean. Parte hartzeko kupoak ezartzen badira ere, nahiko zabalak dira, interesa duen edozein eskola-umek parte hartu ahal izan dezan.



- 3) Azkenik, lehiaketa murriztuak ditugu: kirol talde mugatu batentzat sortutako lehiaketak dira. Kirolariak hautatzeko irizpideak kirol modalitate bat egiteko dituzten jarrera eta gaitasun errealak zein potentzialak izango dira. Hain zuzen ere, etorkizunean kirol elitean egon litezkeen pertsonak dira.
- b) Irakaskuntza jarduerak lehiaketatik kanpoko kirol prestakuntzarekin lotutako jarduerak dira. Prestakuntza horren mailaren arabera, kirol jarduera izan daiteke hasierako jarduera (parte hartzea borondatezkoa da, eta kirol jakin batean hasien dira eskola-umeak) edo teknifikazio jarduera (entrenamendu-saioak dira, eta kirol jakin baterako gaitasuna dutelako hautatu duten eskola-ume talde bat hobetzeko egiten dira).
- c) Detektatzeko jarduerak saio bakan batzuk dituzten jarduerak dira, eta horien helburua da kirol jakin batean errendimendu ona izateko gaitasun eta jarrera bereziak dituzten eskola-umeak topatzea.
- d) Kirol eta kultur jarduerak, hau da, kirolari lotutako kultur jarduerak (kirol museoetara joatea, kirol baten historia ezagutzea...), eta aisialdiko jarduerak, hau da, kirola lehiarik gabe egiten dena (mendi-irteerak, zikloturismoa...).

Jarduerak (hasteko adina) Actividades (edad iniciación)	Irakastekoak Enseñanza	Hasierakoak (benjaminurrea) Iniciación (prebenjamín)	Teknifikazioa (kimuak, 2. urtea) Tecnificación (2.º año alevín)	Teknifikazioa (kimuak, 2. urtea) Tecnificación (2.º año alevín)
	Lehiaketa Competición	Parte hartzekoak (benjamina) Participación (benjamín)	Errendimenduari ekitekoak (kimuak, 2. urtea) Iniciación al rendimiento (2.º año alevín)	Murriztuak (2. urteko kimuak) Restringidas (2.º año alevín)
	Detektatzea Detección	1. urteko kimuak 1.º año alevín	1. urteko kimuak 1.º año alevín	1. urteko kimuak 1.º año alevín
	Beste batzuk Otras	Aisialdikoak, kirola eta kultura (benjaminurrekoak) Recreativas deportivo-culturales (prebenjamín)	Aisialdikoak, kirola eta kultura (2. urteko kimuak) Recreativas deportivo-culturales (2.º año alevín)	Aisialdikoak, kirola eta kultura (2. urteko kimuak) Recreativas deportivo-culturales (2.º año alevín)
		Kirolean parte hartzea Participación deportiva	Errendimenduari ekitea Iniciación al rendimiento	Kirolerako talentuak eta promesak identifikatzea Identificación de talentos y promesas deportivas
Ibilbideak / Itinerarios				

4. oinarria. — Parte hartzaileak

Honako hauek ahalko dute parte hartu Bizkaiko Eskola Kirola programaren 2023/2024ko jardueretan:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxe guztiak, horietako guraso elkarteak edo horiei atxikitako kirol erakundeak, elkarte-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten kirol elkarte eta/edo taldeak, ikastetxe zein kirol elkarteei loturiko fundazioak eta Bizkaian bizi diren eta/edo Bizkaian eskolatuta dauden neska-mutilak.
2. Heziki eta Multikirol modalitateetan izena eman ahal izango dute Bizkaiko Lurralde Historikoan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxeak, horietako guraso elkarteak eta ikastetxe horiei atxikitako kirol elkarteak edo fundazioak, zein Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, haien udal erakunde autonomo edo kirolen udal fundazio publikoak.
3. Gipuzkoa eta Arabako lurralde historikoetan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxeak eta lurralde historiko horietako kirol elkarteak eta/edo taldeak. Edonola ere, eskabideak idatziz aurkeztu beharko dituzte, dagokien lurralde historikoan kirol arloan eskumena duen organoaren baimenarekin batera.
4. Araban edo Gipuzkoan bizi diren eta Bizkaian eskolatuta ez dauden haurrek izena eman ahal izango dute Bizkaiko eskola-kirolaren programaren barruan jasotako kirol-jardueretan, baldin eta ikastetxe bat, guraso-elkarte bat, kirol-elkarte bat edo klub bat ordezkatzan badute, bai eta ikastetxeei edo kirol-erakundeei



lotutako fundazioak ere. Horiek guztiak Bizkaiko Lurralde Historikokoak izango dira, eta dagokien Lurralde Historikoko kirol-arloko organo eskudunaren baimena aurkeztu beharko dute.

5. Egoitza Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan ez daukaten eta 2023/2024ko Bizkaiko Eskola Kirolaren Programan parte hartzea eskatzen duten erakunde edota kirolariak. Kasu hauetan, eskabide bakoitza berariaz aztertuko da, eta jatorrizko tokiko kirol-arloko organo eskudunaren baimena beharko da.
6. 3. 4. eta 5. puntuetan jasotako taldeko lehiaketa-jardueretan parte hartzen duten erakundeek eta/edo banakako lehiaketa-jardueretan parte hartzen duten kirolariek ezin izango dute Bizkaiko Lurralde Historikoa ordezkatu.
7. Oinarri honen 1., 2., 3. eta 5. puntuetan ageri diren entitateek ziurtatu behar dute haiei zerbitzu ematen dieten lan-kontratadun langile, langile boluntario eta/edo laguntzaile guztietatik, baldin eta adingabeekin harremana izan ohi badute, inor ez dagoela epai irmoz kondenaturik sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik edo gizakien salerosketaren aurkako delituren batengatik, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikulua aplikatuz. Hori egiaztatzeko, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Nagusiarren ziurtagiri negatiboa behar da.

Era berean, erakundeek bete beharko dituzte aipatutako haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 48. artikulua ezarritako betebeharrak, hala nola:

- Herri-administrazioek kirol-arloan hartzen dituzten jarduera-protokoloak aplikatzea.
- Babes-ordezkeriaren figura izendatzea.
- Beharrezko formakuntza bermatzea.

Horri dagokionez, eta entitateek onartu beharreko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren haurrak eta nerabeak babesteko protokoloarekin bat etorriz, Ongizateko arduradun bat izendatu beharko dute, hura kudeatzeko, eta kirolariek lan egiten duten pertsona guztiek (Eskola Kiroleko arduraduna, entrenatzaileak...) haurrak kirolean zaintzeko eta babesteko sentsibilizazio-ikastaroa egin dutela ziurtatu beharko dute.

5. oinarria. — Entitate parte-hartzaileen izen ematea eta kirolarien alta. Bete beharreko datuak eta egiaztatu daitekeen dokumentazioa

1. Eskaerak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) artikulua arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

- <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

2. Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dagoen eredu ofizialaren arabera izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

3. Egoitzan eskuragarri dagoen ereduaren arabera honako hau bete beharko da:
 - a) Erantzukizunpeko adierazpena, erakundeak haurrak eta nerabeak babesteko protokolo bat duela eta hura kudeatuko duen ongizate-arduradun bat izendatu dela adierazten duena. Kirolariek lan egiten duten pertsona guztiek (eskola-kiroleko arduradunak, entrenatzaile e.a.) kirolean haurrak zaintzeko eta babesteko sentsibilizazio-ikastaroa egin dutela ziurtatu beharko da.
 - b) Erantzukizunpeko adierazpena, entitateak aurkezten duen eskabidean jasotako pertsona bakoitzari (zerbitzu ematen dieten lan-kontratadun langile, langile boluntario eta/edo laguntzaile guztietatik, baldin eta adingabeekin harremana izan



ohi badute), jakinarazi zaiola Bizkaiko Foru Aldundiak, ahal denean, elkarreraginean jardungo duela sexu-delituei buruzko datuak lortzeko.

4. Legezko edo borondatezko ordezkari batzuen bidez baliozkoa den edozein bi-tartekoren bidez egiaztatu beharko da.

5. Dauden datu-bitartekaritarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilia, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kirol Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek erakunde parte-hartzaileei eta eskabideetan jasotako pertsonen buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administrazioaren beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek dira 2023an luzatutako Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboak, jardueran parte hartzen zuten profesional eta boluntario guztienak.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kirol Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

6. Izena emateko eskabideak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, 10 eguneko epea emango zaio erakunde interesdunari, egin dituen akatsak zuzendu edo dagoen dokumentazioa aurkez dezan, eta, horrekin batera, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu, ebazpena eman, eta atzera egindakotzat joko dutela, eta artxibatu egingo dutela bere eskabidea.

7. Lehen aldiz Eskola Kiroleko Programako jardueretan parte hartu gura duten eskola adinean diren kirolarien alta guraso edo lege ordezkariak eman beharko dute ondorengo webgunean:

— www.bizkaia.eus/eskolakirola

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kirolaren ardura duen Zerbitzuan (Bilboko Rekalde zumarkalea 30-1., astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era) edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira. Kirol etxean laguntza jaso ahalko da halaber (Martin Barua Picaza kalea, 27 Bilbo-48003).

6. oinarria.— Baimenak

Foru dekretu honetan aurrez ikusi ez diren gainerako kasuetan, beharrezkoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari baimen-eskabidea aurkezteko, hala egin behar dela xedatzen baitu Bizkaiko Eskola Kirola programan jasota ez dagoen edozein egoeratan baimena emateko prozedura arautzen duen foru aginduak.

Orohar, federazio lizentzia edukitzeko baimenek bertan behera utziko dute eskola kiroleko lizentzia, eta ezin izango da beraz parte hartu dagoen kirol modalitateko Bizkaiko Eskola Kiroleko Programaren baitako proba edo lehiaketetan.

7. oinarria.— Asegurua

Programaren barruko kirol jardueretan parte hartzen dutenek aseguru-poliza bat izango dute, Bizkaiko Foru Aldundiak harpidetua, eta poliza horrek honako estaldura hau bermatuko die:

1. Osasun-laguntzako aseguru, baldin parte-hartzaileak ez badu beste agiri baten bidez laguntza hori jasotzeko eskubiderik.



2. Erantzukizun zibileko aseguruua.
3. Kalte-ordaina emateko aseguruua, parte-hartzaileak galera anatomiko edo funtzionalen bat duenerako, edo —aseguruei buruzko legeriak baimendutako kasuetan— parte-hartzailea hiltzen denerako.

8. oinarria. — Euskararen erabilera

Jarduerak garatzean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direla bermatu behar da, eta, batez ere, publizitateari eta dokumentazioari dagozkien alderdi guztietan (gutunak, kartelak, liburuxkak, egitarauak, megafonia...).

9. oinarria. — Eskola kiroleko proiektua

Eskola kiroleko proiektua erakundearen barneko kudeaketarako eta gizarteratzeko agiri bat da, eskolaumeentzako kirol jarduerari dagokienez erakundearen helburuak, egiturak eta planak jasotzen dituena.

Horregatik, nahi duten erakundeek webgunearen bidez bete ahal izango dituzte kasuan-kasuko atalak:

— www.bizkaia.eus/eskolakirola

Bizkaiko Foru Aldundian kirolez arduratzen den zerbitzuak publiko egin dezake eta zabaldu aipatutako eskola kiroleko proiektua aurkeztzen duten entitateen izena, eta baita ere identitate-printzipioei eta xede eta helburuei dagokien testu osoa ere.

Eskola kiroleko proiektua lantzeko informazio gehiago ondorengo webean lortu ahal da:

— www.bizkaia.eus/eskolakirola

10. oinarria. — Entitateko Eskola-kiroleko kirol-arduraduna

Eskola-kiroleko kirol-arduradunaren figura parte hartzen duen erakunde bakoitzean jarduera kudeatzeaz eta ondo garatzeaz arduratzen da.

Hauek dira figura horrek bete beharko lituzkeen baldintza nagusiak:

— Kirol-prestakuntza egokia (15. oinarrian jasotakoa).

— Erakundearekiko lotura lan-kontratu baten bidez.

— Lana Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egiteko gaitasuna.

Izena eman duten entitateek baldintza horien egiaztatiriak aurkeztu ahal izango dituzte, hala badagokio, diru-laguntzetarako kontuan har daitezten.

11. oinarria. — Entitateko eskola-kiroleko ongizate-arduraduna

Ongizateko arduraduna arduratuko da erakundean haurrak eta nerabeak babesteko ezarritako protokoloa hedatzeaz eta betetzeaz.

Era berean, erakundeko kirolariek bertara jo ahal izango dute beren kezkak adierazteko, eta, beharrezkoa izanez gero, indarkeria-egoeraren bat antzemanaz gero, dagozkion komunikazioak hasteko.

Horretarako, ikastaro hauek eginak izan beharko ditu:

- a) Haurrak kirolean zaintzeko eta babesteko sentsibilizazio-ikastaroa.
- b) Kirol-inguruneetan adingabeak babesteko protokoloa erabiltzea.

II. TITULUA**LEHIAKETA JARDUERAK****12. oinarria. — Lehiaketako araudi orokorra**

Lehiatzeko kirol modalitate guztiek lehiaketa araudi orokor bera izango dute, ondorengo web gunean argitaratuko dena:

— www.bizkaia.eus/eskolakirola



Lehiaketako araudi orokorrak ezarritako esparruaren barruan talderen bat antolatu ezin duten erakundeek (parte-hartzaile kopuruagatik; eskualde, herri edo sexu irizpideengatik; goragoko edo behegoko kategoria baten parte hartzeagatik, eta abar) kontsulta egin diezaioките Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Atalari (Rekalde zumar-kalea, 30, 1. solairua – Bilbo. E-Posta: eskola.kirola@bizkaia.eus). Atal horrek egingo du kasu jakin bakoitzaren gaineko txostena, eta jarduera ahalik eta ondoen garatzeko konponbide egokia bilatuko du.

13. oinarria. – Partaidetza

1. Programan parte hartzen duten erakundeek instalazio egokiak izan behar dituzte izena eman duteneko jarduera egiteko.

2. Kirolarien egonkortasuna. Entitateko plantillaren Futboleko kirol modalitateetan, bai gizonezkoenean bai mistoan (F7 eta F11) Bizkaian egoitza duten Kirol Elkarte edota Klubek aurreko denboraldian entitate horretan izena emandako kirolarien % 85a mantendu beharko dute. Ez dira kontuan hartuko aurreko denboraldian aipatutako kirol modalitatearen batean izena emanda egon ez diren eskola adineko kirolarien altak.

Baldintza hau betetzen ez badute entitatek lehiaketa jardueretan parte hartzeagatiko diru laguntzak jasotzeko aukera galduko du.

Halaber, Errendimenduari Ekiteko llibiduan parte hartzeko eskubidea galduko dute (R ligak) hurrengo Eskola Kiroleko programan.

Ez zaie atal honetan ezarritakoa aplikatuko aurreko denboraldian F7 eta F11ko talderik aurkeztu ez duten entitateei.

3. Lehiaketek irau bitartean, taldekako eta banakako kiroletan, osaeran aldaketak egin ahalko dira.

Aldaketak 2024ko martxoaren 29 baino geroago egiten badira edo, udako hilabeteetan egiten diren jardueren kasuan, lehiaketaren azken hilabetearen barruan, azken faseari uko egiteko idazkia aurkeztu beharko da.

4. Taldekako kiroletan, erakunde parte hartzaileek (kirol taldeek eta elkarteek, ikastetxeek, guraso elkarteek) beste erakunde batzuetan ikasten duten kirolarien izenak eman ditzakete, beti ere kirolaria edo kirolariak ikasten ari den/diren ikastetxeak kirol modalitate, maila eta sexu bererako izena eman badu. Kirolariaren izen-deiturak jasotzen dituen baimen-idatzia aurkeztu behar da, eredu ofizialaren arabera (eredua eskura jarri zaie entitateei www.bizkaia.eus/eskolakirola helbidean) eta ikasketak egiten dituen ikastetxearen zigilua eta ikastetxeko zuzendariak edo/eta kirol arduradunak sinatua.

Agiri hori ez da beharrezkoa izango baldin eta kirolariaren ikastetxeak ez badu izenik ematen kirol modalitate, kategoria eta sexu bererako.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailean kirolaz arduratzen den Zerbitzuak datu horiek berretsi edo/eta egiaztatzekeo eskubidea izango du.

5. Banakako kiroletan, erakundeek beste ikastetxe batzuetan matrikulatutako kirolarien izenak eman ditzakete, baldin ikastetxe horiek kirol modalitate berbererako izena ematen ez badute. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko kirolaz arduratzen den zerbitzuak datu horiek berretsi edo/eta egiaztatzekeo eskubidea izango du.

Kirolariak/ek ikasten ari den/diren ikastetxeak kirol modalitate, maila eta sexu bererako izena eman badu, kirolariaren izen-deiturak jasotzen dituen baimen-idatzia aurkeztu behar da, eredu ofizialaren arabera (eredua eskura jarri zaie entitateei www.bizkaia.eus/eskolakirola helbidean) eta ikasketak egiten dituen ikastetxearen zigilua eta ikastetxeko zuzendariak edo/eta kirol arduradunak sinatua.

6. Lehiaketa-jardueretan lehen aldiz izena ematen duten kirolari guztiek erantsi beharko dituzte errolda-ziurtagiria, batetik, eta, bestetik, diploma bat egiaztatzen duena kirolariaren aitak, amak edo tutoreak egina dutela «Eskola kirolaren gakoak gurasoen-tzat» online prestakuntza-pilula. Eskola-kirolaren web-orrian egin daiteke prestakuntza hori:

— www.bizkaia.eus/eskolakirola



Banaketa edo dibortzio egoeran edo prozesuan diren gurasoen seme-alabei modalitate jakin batean alta/baja emateko, inskripzioa egingo dien entitateak guraso bien baimen espresua eduki beharko du (eredua eskura jarri zaie entitateei www.bizkaia.eus/ eskolakirola helbidean).

7. Eskola Kirola egitarauan izena emana duten eta parte hartzeari utzi nahi dioten taldeek edo/eta partaideek idatziz jakinarazi beharko dute bajarako eskaria.

Kirolari bati baja emateko, haren aitak, amak edo tutoreak beren-beregi emaniko baimena izan behar du kirolaria izena emanda dagoen erakundeak (eredua eskura jarri zaie entitateei www.bizkaia.eus/eskolakirola helbidean).

Modalitaterean batean izena emana duten taldeei edo/eta partaideei, horretarako programatutako jardueren batean parte hartzen ez badute, baja emango zaie.

Halaber, kirolaz arduratzen den zerbitzuak baja eman diezaieke talde zein kirolariei, denboraldian zehar gerta daitezkeen inguruabar desberdinen kariz.

8. Norgehiagoka bakoitzean kirolari-aldaketak egin daitezkeen talde-modalitateetan (Futbola, Eskubaloia, Errugbia etab.) izena emandako pertsona guztiek jardunaldi bakoitzean gutxieneko eta etengabeko denbora-tarte batean parte hartu beharko dute, kirol-diziplina bakoitzeko joko-araudietan jasotzen den bezala.

Hori dela eta, helburu bakarra emaitza duten kirolarien deialdirik ez da egingo. Kirol hastapen adin hauetan emaitzak ez luke izan behar helburu behinena.

Dekretu honi dagokionez, deialdi batek emaitzak lortzea beste helbururik ez duela joko da baldin eta kirolari bat lehiaketa batetik kanpo uzten bada eta horren arrazoia ez bada hauetarikoren bat:

- a) Lesioa edo gaixotasuna.
- b) Erakundearen diziplinazko neurri bat.
- c) Federazioaren zehapena.
- d) Eskola-umeak ezinezko izatea parte hartzea.
- e) Izena ematen duten eskola-umeen kopurua handiagoa izatea deialdian sar daitezkeenena baino. Halakoetan, ekitatiboki banatu behar da, izena emandako kirolari guztiek antzeko partida kopuruan parte har dezaten.

Eskola Kirolaren Atalak partida bakoitzeko arbitroen aktak begiratuko ditu ikusteko ea deialdi baten helburua emaitzak lortzea den bakarrik ala ez. Horretarako, erakundeek eta klubek ondoren aipatzen den dokumentazioa jarri beharko dute Eskola Kirolaren Atalaren esku, kasuan kasuko arrazoia kontuan harturik:

- a) Lesioa edo gaixotasuna egiaztatzen duen agiri bat, halakoak emateko eskumena duten osasun-langileek emana (medikuek).
- b) Diziplinazko neurriaren jakinarazpena (zehapena eragin duen gertaera jasota), kirolariaren aitak, amak edo tutoreak sinatua.
- c) Bizkaiko federazioaren zehapenaren jakinarazpena.
- d) Ez-egotearen jakinarazpena, kirolariaren aitak, amak edo tutoreak sinatua.
- e) Erabili den sistema ekitatiboaren deskripzioa.

Emaitzak lortzea beste helbururik ez duten deialdiak egiten dituzten erakundeek ezingo dute izan lehiatzeko kirol jardueretan parte hartzen duten erakundeentzako diru-laguntza foralen onuradun, ez eta halako jarduerak bezalaxe Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartzeko den Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeentzako laguntzen onuradun ere.

Errendimenduari ekiteko ibilbidean (R ligetan) parte hartzeko eskubidea galduko dute hurrengo Eskola Kiroleko Programan, edo zenbait urtetan, emaitzak lortzeko helburuarekin egindako deialdiak denboraldietan edo talde kopuruan errepikatzen badira.



Era berean, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko Eusko Jurlaritzaren uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan jasotako zehapenak aplikatu ahal izango dira.

9. Talde-modalitateen azken faseetan, talde bakoitzean izena emanda dauden kirolari guztiek parte hartu beharko dute.

Bestela, eta partida hasi aurretik, oinarri honetako 8. puntuari aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, parte hartu ez duen kirolari bakoitza zergatik ez dagoen justifikatzeko.

Ez-betetzeak partida galtzea ekarriko du.

10. Futbol R eta A-n izena eman duten taldeek berarekin izena emandako jokalarien % 80ko asistentziarekin parte hartu beharko dute partida guztietan. Talderen batek ez balu lortuko partida atzeratea eta aipatutako gutxieneko ehunekora iristerik ez balu izango, partida galdutzat emango zaio. Bi taldeak balira arau hau betetzen ez dutenak, biei emango zaie partida galdutzat.

14. oinarria.— Eskola Kiroleko lizentziak

1. Izena eman duten kirolari, entrenatzaile eta ordezkariak lehiaketarako akreditatzen dituen lizentzia jasoko dute. Datu pertsonalez, taldeaz eta erakundeaz gain, lizentziak honako datu hauek jasoko ditu:

- a) Argazki digitalizatu bat, duela gutxi egina.
- b) Kirolarien kasuan, gurasoetarik batek edo tutoreak —hala badagokio— sinatutako agiria, adierazten duena batetik, haurra kirola egiteko osasun egoera egokian dela eta bere gain hartzen duela horren erantzukizuna, eta, bestetik, onartzen dituela Bizkaiko Eskola Kirola Programak urte horretako denboraldirako ezarritako gainerako arauak.

2. Lehiaketa guztietan, izena eman duten pertsonak (entrenatzaileak, kirolariak eta ordezkariak) aurkeztu beharko dituzte lizentzia eta agiriak, behar bezala beteta, aurreko agirietan azaltzen diren datuak egiazkoak direla berresteko. Gainera, epaileak, arbitroak eta Bizkaiko Foru Aldundiak izendatutako pertsonalak zalantzarik izanez gero parte-hartzaileen adinaz edo nortasunaz, lizentzia eta agiri horiek eskatu ahalko dituzte.

15. oinarria.— Titulazioak

1. Futbol R, Futbol A eta Saskibaloia R modalitateetan taldeak inskribatu nahi dituzten entitateek honako gutxieneko titulazio hau duten teknikariak izan beharko dituzte:

- a) Erakundeko eskola-kiroleko kirol-arduraduna:
 - I. maila/Erdi Mailako Hasierako Ikastaroa eta antzekoak (UEFA B, Nazionala B, edo futboleko oinarritzko diploma).
- b) Entrenatzaileak:
 - Futbola eta Saskibaloia R: I. Maila/Erdi Mailako Hasierako Ikastaroa eta antzekoak (UEFA B, Nazionala B, edo futbolean oinarritzko diploma).
 - Futbola A: EKML (Eskola Kiroleko monitore laguntzailea).

Titulazio horiek lehiaketa bakoitzean izena emateko epea amaitu baino lehen egiaztatatu beharko dira.

2. Gainerako modalitateetan talde eta kirolariak inskribatu nahi dituzten entitateek ondoren zehazten diren titulazioak eta diplomak egiaztatzeko agiriak aurkeztu ahal izango dituzte, bai Erakundeko eskola-kiroleko kirol-arduradunen kasuan zein entrenatzaileen kasuan:



Kirol titulazioa T. Deportiva	Titulazio akademikoa T. académica	Ziurtagiri profesionalak Certificados profesionales
Entrenatzaile nazionala Entrenador/a nacional III. Maila / Nivel III	Gorputz-Hezkuntzan liz. edo g./ Jarduera fisikoaren eta kirolaren Zientzietako liz. edo g. L. o G. en Educación física / L. o Gr. en Ciencias de la Actividad Física y del Deporte Goi Kirol Teknikaria / Técnico/a deportivo superior en...	
Herrialdeko entrenatzailea Entrenador/a regional II. Maila / Nivel II	Magisteritza, G.H. edo Magisteritzan G.H. g. / Magisterio E.F. o G. en Magisterio E.F. Gorputz eta kirol-jardueren animazioko goi-mailako zikloa / Ciclo de grado superior en animación de actividades físicas y deportivas Goi-mailako zikloa Gizarteko eta kiroleko irakaskuntzako eta animazioko goi-mailako teknikaria / Ciclo de grado superior de Técnico/a Superior en Enseñanza y Animación Sociodeportiva Kirol Teknikaria / Técnico/a deportivo en...	
I. Maila / Nivel I	Natur ingurunean kirol jarduera fisikoak bideratzeko erdi mailako zikloa / Ciclo de grado medio conducción de actividades físicas y deportivas en el medio natural	
Begiralea Monitor/a Bloke orokorra, I. Maila Bloque común, Nivel I Eskola Kiroleko Monitore Laguntzaile Monitor Auxiliar de Deporte Escolar		Kirol-, gorputz- eta josteta-animazioa desgaitasuna duten pertsonentzat Igeriketa-jarduerak Animación físico-deportiva y recreativa para personas con discapacidad Actividades de natación
Eskola kiroleko begiralea Monitor/a de Deporte Escolar	Goi-mailako zikloa Egokitzapen fisikoko goi-mailako teknikaria/Ciclo de grado superior de Técnico/a Superior en Acondicionamiento Físico	
		Kirol-, gorputz- eta josteta-animazioa Animación físico-deportiva y recreativa

G. = Gradua / Grado. L.= Lizentziatura / Licenciatura

Agiriren bat aurkezteko aukera dago beti ere Eskola Kiroleko programan entrenatzaile edo kirol arduraduna alta eman eta egutegiko 30 egunera arteko epean.

Ez da beharrezkoa izango aurreko denboraldietan aurkeztutako titulazioen egiaztariak aurkeztea.

2024ko martxoaren 29tik aurrera izena ematen duten entrenatzaile edo kirol arduradunak ez dira kontuan hartuko diru-laguntzetarako.

16. oinarria.— **Jarduerak**

1. Jardueren esparrua izango da Eskola Kirolari buruz Eusko Jaurlaritzak 2008ko uztailaren 1ean emaniko 125/2008 Dekretuak finkatzen duena.

2. Hona hemen deialdi honetan eskainitako lehiaketa jarduerak:

- Aerobica.
- Xakea.
- Atletismoa.
- 3kako saskibaloia.
- 5/3kako saskibaloia.
- Saskibaloia.
- 7ko eskubaloia.
- 5eko eskubaloia.
- Hondartza-eskubaloia.



- Beisbola.
- Txirrindularitza.
- Krosa.
- Herri kirolak.
- CrossTraining-Herri Kirolak.
- Kirol eskalada.
- Esgrima.
- Eski alpetarra.
- Frontenisa.
- Areto-futbola.
- 7ko futbola.
- 11ko futbola.
- Gimnastika artistikoa.
- Gimnastika erritmikoa.
- Gimnastika tranpolina.
- Hockeya.
- Patin hockeya.
- Gurpil-lerroko patin hockeya.
- Judoa.
- Karatea.
- Borroka.
- Kirol anitza.
- Udal mailako kirol anitza.
- Igeriketa.
- Igeriketa sinkronizatua.
- Orientazioa.
- Padela.
- Patinaje artistikoa.
- Patinaje lasterketak.
- Eskupilota.
- Zesta-punta.
- Pala.
- Trinketa.
- Euskal pilota.
- Arrantza.
- Piraguismoa.
- Arraunketa.
- Roller Freestyle.
- Rugbya.
- Salbamendua eta Sorospena.
- Skateboard.
- Surfa.
- Taekwondo.
- Tenisa.
- Mahai-tenisa.
- Arku-tiroa.



- Triatloia.
 - Txikiboxa.
 - Bela.
 - Hondartza-boleibola.
 - Boleibola.
 - 3ko boleibola.
 - Waterpoloa.
3. Entrenatzaileak, modalitatearen arabera:
- a) Taldeka lehiatzeko jarduerak:
- Talde bakoitzeko entrenatzaile baten izena eman behar da nahitaez, eta talde bakoitzeko entrenatzaile laguntzaile baten izena ere eman daiteke.
- Entrenatzaile nagusi bat eta laguntzaile bat egon ahalko dira gehienez ere. Entrenatzaile laguntzailea da hezkuntza- eta entrenamendu-saioak (entrenamenduak eta lehiaketak) diseinatu, zuzendu eta egiten laguntza eta lankidetzak eskaintzen duen pertsona, entrenatzaileak horiek egin ezin dituzenean.
- Bikoteka lehiatzen den modalitateetan izan ezik, pertsona batek ezingo du jardun entrenatzaile nagusi gisa kirol-modalitate bereko hiru talde baino gehiagotan.
- b) Banakako lehiaketa jarduerak:
- Kirol bakoitzeko entrenatzaile nagusi baten izena eman behar da nahitaez, gehienez lau (4) inskribatu daitezkeelarik. Gainontzeko teknikariak, gehienez ere 10, entrenatzaile laguntzailez joko dira (6).
- Kasu bietan ratioa izango da entrenatzaile bakar bat 10 kirolariko.
- Pertsona batek ezingo du jardun entrenatzaile nagusi gisa bost erakunde baino gehiagotan.
- c) Hala taldeko lehiaketa-jardueretan nola banakoetan, inork ezingo du izena eman entrenatzaile (laguntzaileak barne) edo delegatu gisa, baldin eta ez baditu guztienez 17 urte betetzen denboraldia bukatzen den urtean
4. Kategoriak eta generoa:
- a) Honako hauek izango dira Bizkaiko Eskola Kirola programaren lehiaketa jardueren kategoriak:
- Benjaminak:* 2014/2015ean jaiotakoak.
Kimuak: 2012/2013an jaiotakoak.
Umeak: 2010/2011n jaiotakoak.
Kadeteak: 2008/2009an jaiotakoak.
Gazteak: 2006/2007an jaiotakoak.
- b) Izena eman duten guztiak adinaren arabera dagokien kategorian parte hartuko dute.
- c) Salbuespen gisa, adinaren arabera dagokienaren goiko hurrengo kategorian parte hartu ahalko dute, honako baldintza hauek betez gero:
- 1) Dena delako lehiaketa egiten den hurrengo urtean jaio izana.
 - 2) Taldekako lehiaketa jarduera izatea. 7ko futbola eta 11ko futbola lehiaketa jarduera bat direla ulertuko da. Berdin gertatuko da 5eko eskubaloiarekin eta 7ko eskubaloiarekin, 3kako saskibaloia, 5/3kako saskibaloia eta saskibaloiarekin, eta boleibolarekin eta 3kako boleibolarekin.
 - 3) Egoera horretan izena eman duten kirolarien kopurua ez dadila izan taldeki-de guztien %50 baino gehiago.
 - 4) Gorako hurrengo kategorian eta ondorengo ez bateratzea lehiaketa egitura-tzen denean.
 - 5) Gurasoetako batek edo tutorearen idazkia, ikasleari adinaren arabera dago-kiona baino maila bat gorago parte hartzeko baimena ematen diona eta jar-duera horretatik sor daitezkeen arriskuen erantzukizuna euren gain hartzen



dutela adierazten duena (eredua eskura jarri zaie entitateei www.bizkaia.eus/eskolakirola helbidean).

- 6) Izena eman nahi duen aurreko kategoria, kirol modalitate horretan, konbokatua egotea.
 - 7) Halaber, errendimenduari ekiteko lehiaketa izanez gero (R ligak) Futboleko modalitatean (F7 eta F11), eredu ofizialaren arabera (eredua eskura jarri zaie entitateei www.bizkaia.eus/eskolakirola helbidean) ziurtagiri bat aurkeztu beharko da egiaztatzeko eskolaumearen adin biologikoa eta parte hartu nahi duen lehiaketa bat datozela. Osasun arloan eskumena duen langile batek (mediku batek) eman behar du ziurtagiri hori, eta derrigorrezkoa izango da ume mailako 1. urteko kirolariak ume mailako 2. urteko taldeetan inskribatu ahal izateko, aipatutako lehiaketetan.
- d) Behin lehiaketa hasita, modalitate jakin batean bere adinari dagokiona baino gorago kategoria batean parte hartzen duen kirolariak ezin izango du denboraldi horretan dagokion kategorian edo beheragoko batean parte hartu modalitate horretan.
- Kirolari batek kirol batean dagokiona baino maila bat gorago parte hartzeak ez du esan nahi beste kirol batzuetan lehiaketa jardueretan parteko hartzeko adinez dagokion maila galduko duenik.
- e) Foru Dekretu honen eta ondorengo lehiaketarako araudi orokorraren ondorioetarako, mutilen taldeetat joko dira taldekideen artean gehienez ere emakumezko kirolari bat duten taldeak.
- Modu berean, nesken taldeetat joko dira taldekideen artean gehienez ere gizonezko kirolari bat duten taldeak.
- Ondorioz, mistotzat joko dira taldekideen artean gutxienez ere beste sexuko bi kirolari dituzten taldeak.

17. oinarria. — Parte hartze bitxiak

1. Eskola Kirolaren jarduerak antolatzeko orduan erakundeen barruan gerta daitezkeen inguruabar ezberdinak direla eta, Bizkaiko Eskola Kirola 2023/2024 programaren parte hartzeko, lehiaketetan parte hartu ahal izango da (guztietan, R izenekoetan izan ezik) hurrengo kasuetan eta hurrengo baldintzak betez gero:

- a) Adinez dagozkienak baino beheragoko ikasketak egiten ari diren kirolariek euren ikasturteko ikasleek osatutako taldean parte hartu ahal izango dute. Aldi berean, eta eskola adinean den kirolaria izena emango duen taldea baino goragoko kategoria batekoa denean, egiaztatzea aurkeztu behar da, kirolaria zein mailatan dagoen matrikulatuta adierazten duen ikastetxeko zuzendariak edo ikasketa-buruak emana (eredua eskura jarri zaie entitateei www.bizkaia.eus/eskolakirola helbidean), eta baita idatzia ere, egokitu zaien lehiaketaren azken faseari uko egitekoa (eredua hau ere eskura www.bizkaia.eus/eskolakirola helbidean).
- b) Erakunde batek gehienez hiru (3) kirolari inskriba ditzake berez dagokien maila baino bat beheragoko taldean, baldin eta erakunde horrek ez badu talderik aurkezten haien mailan eta eskola-umeok aurreko urtean jaiok badira. Horretarako, idazki bat aurkeztu beharko dute, uko eginez kasuan kasuko lehiaketaren azken faseari (eredua eskura jarri zaie entitateei www.bizkaia.eus/eskolakirola helbidean).

Azken fasea 4 jardunaldi baino gehiagokoa duten lehiaketetan, beroni uko egin dioten taldeek ere parte hartu ahal izango dute egoki jotzen bada. Taldeok ezingo dute txapeldun geratu, eta beraz federazio bakoitzak erabakiko du nola antolatu, aurretiaz Bizkaiko Foru Aldundiarekin adostu ondoren.

- c) Talde mistoetarako lehiaketarik ezin bada sortu, talde mistoak nesken edo mutilen lehiaketetan sartuko dira, taldekide gehienak zein sexutakoak diren kontuan hartuta.

2. Era berean, jokalekuan ezin daitezke aldi berean egon a eta b kasuetan dagoen kirolari bat baino gehiago.

**18. oinarria. — Izena ematea eta lehiaketa egunak**

1. Taldeen zein parte hartzaileen izena emateko, ondorengo webgunea erabil daiteke:

— www.bizkaia.eus/eskolakirola

Era berean, Kirol etxean (Martin Barua Picaza kalea, 27 Bilbo-48003), Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean kirolaz arduratzen den Zerbitzuan (Bilboko Rekalde zumarkalea 30-1., astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era) edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira.

Bitarteko informatikorik ez duen pertsona orok, inskripzioa egiteko, Kirol Etxean (Martin Barua Picaza, 27, Bilbo) horretarako dauden ordenagailuak erabil ditzake.

2. Izen-ematea behar bezala egin beharko da (gutxieneko kirolari kopurua, kirol arduraduna, posta-helbide elektronikoak...), baliozkotzat eman ahal izateko.

3. Argazki digital bat, atera berria, aurkeztu beharko da izena ematen denean.

4. Probaren egunean bertan eta bakarka inskripzioa egin daitekeen modalitateetan, ez da parte hartze hori kontuan hartuko Bizkaiko Eskola Kirola programan parte hartzeagatik diru-laguntzaren bat emateko orduan.

Eskabideak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, hamar (10) eguneko epea emango zaio erakunde interesdunari, egin dituen akatsak zuzendu edo dagokion dokumentazioa aurkez dezan, eta, horrekin batera, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu, ebazpena eman, eta atzera egindakotzat joko dutela, eta artxibatu egingo dutela bere eskabidea.

Nahitaezkoa da izena ematea eta, egin ezik, ezin izango da lehiaketa jardueretan parte hartu.

Zentzu honetan, entitateak Bizkaiko Eskola Kirola programan honetan oinarriturik ezarri diren lehiatzeko kirol jardueretan parte hartzeagatik Bizkaiko Foru Aldundiak eman ditzakeen diru laguntzetatik kanpo geratuko dira entitateak, izena eman ez duten talde eta kirolariei dagokienez.

Ikasleek talde batean (taldekako kirol modalitateetan) edo erakunde batean (banakako kirol modalitateetan) baino ezingo dute izena eman kirol diziplina bakoitzean. Hala ere, foru dekretu honetan ezarritako arau eta epeen barruan, nahi duten beste kirol diziplinetan eman ahal izango dute izena.

5. Izena emateko epeak honako taula honetan ezarritakoak dira:

IZENA EMATEKO EPEA / PLAZO INSCRIPCIÓN

Kirol jarduera / Actividad deportiva	Hasiera / Desde	Amaiera / Hasta
7KO FUTBOLA R FUTBOL 7 R	IRAILAREN 1ETIK 1 DE SEPTIEMBRE	IRAILAREN 11RA 11 DE SEPTIEMBRE
11KO FUTBOLA R FUTBOL 11 R		
7KO FUTBOLA A FUTBOL 7 A	IRAILAREN 1ETIK 1 DE SEPTIEMBRE	IRAILAREN 18RA 18 DE SEPTIEMBRE
11KO FUTBOLA A FUTBOL 11 A		
SASKIBALOAIA BALONCESTO		
3X3 SASKIBALOAIA BALONCESTO 3X3		
SASKIBALOAIA R BALONCESTO R		
7KO ESKUBALOAIA BALONMANO 7		
5EKO ESKUBALOAIA BALONMANO 5		



Kirol jarduera / Actividad deportiva	Hasiera / Desde	Amaiera / Hasta
KIROL ANITZA MULTIDEPORTE		
ATLETISMOA/KROSA ATLETISMO/CROSS		
5X5/3X3 SASKIBALOI BALONCESTO 5X5/3X3		
7KO FUTBOLA D FUTBOL 7 D		
7KO FUTBOLA B FUTBOL 7 B		
11KO FUTBOLA B FUTBOL 11 B		
7KO FUTBOLA FUTBOL 7		
ARETO FUTBOLA FUTBOL SALA		
PATIN-HOCKEYA HOCKEY PATINES		
GURPIL-LERROKO PATIN HOCKEYA HOCKEY PATINES-LÍNEA		
PATINAJE ARTISTIKOA PATINAJE ARTÍSTICO		
IGERIKETA NATACIÓN		
IGERIKETA SINKRONIZATUA NATACIÓN SINCRONIZADA	IRAILAREN 1ETIK 1 DE SEPTIEMBRE	IRAILAREN 25ERA 25 DE SEPTIEMBRE
ESKU PILOTA R PELOTA MANO R		
ESKU PILOTA A PELOTA MANO A		
ESKU PILOTA B PELOTA MANO B		
ESKU PILOTA D PELOTA MANO D		
ESKU PILOTA E PELOTA MANO E		
EUSKAL PILOTA H PELOTA VASCA H		
PALA		
ZESTA-PUNTA CESTA PUNTA		
3KO BOLEIBOLA VOLEIBOL 3		
BOLEIBOLA VOLEIBOL		
WATERPOLOA WATERPOLO		
TRINKETA TRINKETE		
UDAL MAILAKO KIROL ANITZA MULTIDEPORTE MUNICIPAL		
TENISA TENIS	IRAILAREN 1ETIK 1 DE SEPTIEMBRE	URRIAREN 9RA 9 DE OCTUBRE
NESKEN ESKU PILOTA/PELOTA MANO FEMENINA		



Kirol jarduera / Actividad deportiva	Hasiera / Desde	Amaiera / Hasta
PATINAJE LASTERKETAK PATINAJE CARRERAS	IRAILAREN 1etik 1 DE SEPTIEMBRE	URRIAREN 16RA 16 DE OCTUBRE
ROLLER FREESTYLE		
SALBAMENDUA ETA SOROSPENA SALVAMENTO Y SOCORRISMO		
AEROBICA AEROBIC	IRAILAREN 1etik 1 de SEPTIEMBRE	ABENDUAREN 11ra 11 de DICIEMBRE
BEISBOLA BEISBOL		
KIROL ESKALADA ESCALADA DEPORTIVA		
FRONTENISA FRONTENIS		
GIMNASTIKA ARTISTIKOA GIMNASIA ARTÍSTICA		
GIMNASTIKA ERRITMIKOA GIMNASIA RITMICA		
GIMNASTIKA TRANPOLINA GIMNASIA TRAMPOLÍN		
HERRI KIROLAK		
CROSSTRANING-HERRIKIROLAK		
KARATEA KARATE		
BORROKA LUCHA		
ORIENTAZIOA ORIENTACIÓN		
PIRAGUISMOA PIRAGÜISMO		
SKATEBOARD		
TAEKWONDOA TAEKWONDO		
MAHAI-TENISA TENIS DE MESA		
TXIKIBOX		
XAKEA AJEDREZ	IRAILAREN 1etik 1 de SEPTIEMBRE	URTARRILAREN 8ra 8 de ENERO
ESGRIMA ESGRIMA		
PADELA PADEL		
JUDO JUDO		
PESCA		
ARRAUNA REMO		
ERRUGBIA RUGBY		
HOCKEYA HOCKEY		



Kirol jarduera / Actividad deportiva	Hasiera / Desde	Amaiera / Hasta
TRIATLOIA / TRIATLÓN	IRAILAREN 1etik 1 de SEPTIEMBRE	MARTXOAREN 4ra 4 de MARZO
ARKU-TIROA TIRO CON ARCO		MAIATZAREN 2ra 2 de MAYO
HONDARTZA-ESKUBALOIA BALONMANO-PLAYA		
HONDARTZA-BOLEIBOLA VOLEY-PLAYA		EKAINAREN 3ra 3 de JUNIO
BELA VELA		
TXIRRINDULARITZA CICLISMO		
SURFA SURF		

6. Lehiaketa jardueren hasiera eta amaiera.

Hasiera eta Amaiera

Izena emateko epea amaitu eta handik 15 egunera has daitezke lehiaketak.

Eskola Kirola egitarauko lehiaketa jarduerak 2024ko maiatzean amaitu beharko dute, lurralde arteko eremuko lehiaketak eta udan egiten diren jarduerak izan ezik, jarduera horietarako azken amaiera-eguna 2024ko irailaren 9 izango da eta.

7. Publikoa Eskola Kiroleko Programako edozein lehiaketatar joatea erabat doakoa izango da.

8. Baliiodunak ez diren egunak.

Honako hauek ez dira lehiaketa jarduerak egiteko egun baliioduntzat hartuko, parte-hartzejardueretan eta errendimenduan:

- 2023ko abenduak 2, 9, 23 eta 30.
- 2024ko urtarrilak 6.
- 2024ko martxoak 30.

Horrez gainera, honako hauek ez dira egun baliioduntzat hartuko parte hartzeko ibilbidean:

- 2023ko urriak 14.
- 2024ko otsailak 10.
- 2024ko apirilak 6.

Edonola ere, behean zehazten den jardunaldi kopurua —inoiz ez gehiago— programatu ahal izango da, kategoriaren eta ibilbidearen arabera:

Maila Categoría	Jardunaldi Kopurua / N.º Jornadas	
	Kirolean Parte Hartzeko Ibilbidea Itinerario de Participación Deportiva	Errendimenduari Ekiteko Ibilbidea Itinerario de Iniciación al Rendimiento
Benjaminak / Benjamín	20	—
Kimuak / Alevín	20	24
Umeak / Infantil		26
Kadeteak / Cadete		—
Gazteak / Juvenil		—

9. Erakartze-jardunaldiak edo antzekoak (ate irekien jardunaldiak...).

Dagokion kirol-diziplinako Eskola Kirolaren Programako lehiaketa-jarduerak amaitu ondoren bakarrik egin ahal izango dira.



Aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzen ez badu, entitate antolatzaileak galdu egingo du lehiaketako kirol-jardueretan parte hartzen duten erakundeei zuzendutako dirulaguntzak eskuratzeko eskubidea 2023/2024 denboraldian, bai eta Kirol Errendimenduaren Hastapeneko Ibilbidean (R Ligak) parte hartzeko eskubidea ere, eskola-kirolaren hurrengo programan.

19. oinarria. — Diziplinazko araudia

Diziplina atxikitzeko, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzko Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 23ko 391/2013 Dekretua aplikatuko da.

20. oinarria. — Errendimendu hastapeneko lehiaketei eta/edo lehiaketa murriztuei buruzko berezitasunak

Gorago zehaztutakoez gainera, errendimendu hastapeneko lehiaketetarako (R lehiaketak) eta/edo lehiaketa murriztuetarako, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Horietan parte hartzen duten erakundeek, hurrengoak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte:
 - a) Erakundeak nahikoa kalitate duten instalazioak dituela, bai entrenamendu-saioak egiteko bai partidak jokatzeko. Adierazi beharko dute partidaren ohiko ordutegia eta zelaiaren zein zati erabiliko den (eredua eskura jarri zaie entitateei www.bizkaia.eus/eskolakirola helbidean).
 - b) Ez dutela antolatzen, parte hartzen, edo ez dutela laguntzen Bizkaiko Foru Aldundiak eskola adinean diren kirolarientzat baimendu gabeko jarduerarik (eredua eskura jarri zaie entitateei www.bizkaia.eus/eskolakirola helbidean).
Lehiaketarako araudi orokorrean ezarriko dira deialdian jasotako kirol bakoitzean eskatuko diren gutxienekoak.
2. Izena eman duten kirolariek honako agiri hauek erantsi beharko dizkiote izena emateko eskabideari:
 - a) Kirolariaren NANA edo pasaporte (jatorrizkoa eta kopia), baldin eta aurretik aurkeztu ez bada.
 - b) Kirolariaren erroldatze-agiria, baldin eta aurretik aurkeztu ez bada.
3. Bizkaiko Foru Aldundiak eta modalitateko Bizkaiko Kirol Federazioak zehaztuko dute zein den parte hartuko duten taldeen gehieneko kopurua. Gehieneko kopuru hori gaindituz gero, honako irizpide hauek erabiliko dira taldeak aukeratzeko:
 - a) Erakundeak zer aurrekontu, giza baliabide eta baliabide material jarri dituen R lehiaketako eskola-taldeentzat.
 - b) Udalerriko/eskualdeko gainerako ikastetxe eta taldeekin dituen lankidetzarako itunak eta hitzarmenak.
 - c) Kirol egitura horrek ume, kadete eta gazteen kategorietan dituen jarraipena eta kirol-maila.
 - d) Erakundeen eskualdekako banaketa homogenea eta orekatua izatea.
 - e) Salbuespen gisa, kontuan hartuko dira kimuen eta umeen kategorietako emaitzak.
4. Errendimenduko lehiaketetan eta lehiaketa murriztuetan parte hartzen duten erakundeek parte hartzeko eskubidea gal dezakete honako kasu hauetan:
 - a) Bizkaiko Foru Aldundiak baimendu ez dituen jarduerak antolatu, horietan lagundu edo parte hartzen badute.
 - b) Emaitzak lortze hutsagatik deialdiak egitea.
 - c) Ez betetzea aurreko denboraldian ezarritako jokalarierendaren egonkortasun ehunekoak.
 - d) Eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzko Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 17 eta 20. artikuluetan aurreikusitako zigorrak hala ezartzen badu.



Eskubide hori kirol denboraldi baterako galduko da gutxienez.

Errendimendu hastapeneko lehiaketak eta/edo lehiaketa murriztuak Futboleko (F7, F11) modalitateetan, urte berean jaiotako eskola-ikasleen artekoak izango dira. Ez da inolako baimenik emango, ikasle nagusiagoek haietan parte har dezaten.

III. TITULUA

IRAKASKUNTZAKO JARDUERAK

21. oinarria.—Hastapeneko jarduerak

1. Hastapeneko ikastaroak

Hona hemen 2023/2024 denboraldirako deitu diren hastapeneko ikastaroak:

Federazioa / Federación	Jarduera / Actividad
ARKU-TIROA / TIRO CON ARCO	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
ARRANTZA / PESCA	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
BELA / VELA	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
BORROKA / LUCHA	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
KIROL EGOKITUA/ DEPORTE ADAPTADO	Atletismoa, Saskibaloia, Boccia, Neguko kirolak, Erraketa kirolak, Areto futbola, Gimnasia, Golfa, Hockeya, Igeriketa, Irristaketa, Pilota, piraguismoa, Slaloma, Surfa eta bela. Atletismo, Baloncesto, Boccia, Deportes de invierno, Deportes de raqueta, Futbol sala, Gimnasia, Golf, Hockey, Natación, Patinaje, Pelota, PIRAGÜISMO, Slalom, Surf y vela.
NEGUKO KIROLAK / DEPORTES DE INVIERNO	KORRICAN
ESGRIMA / ESGRIMA	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
EUSKAL PILOTA / PELOTA VASCA	EUSKAL PILOTA HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN A LA PELOTA VASCA
GOLFA/GOLF	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
HOCKEYA / HOCKEY	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
HIPIKA / HÍPICA	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
MENDIA / MONTAÑA	ESKALADA HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN ESCALADA
	IBILKETA NORDIKOA / MARCHA NÓRDICA
	ORIENTAZIOA/ ORIENTACIÓN
	EGONALDIK (MENDIZALETASUN HASTAPENA, NEGUKO KIROLAK...) / ESTANCIAS (INICIACIÓN AL MONTAÑISMO, DEPORTES DE INVIERNO...)
PADELA / PADEL	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
PATINAJEA / PATINAJE	PATINAJEAREN HASTAPENA I. / C. INICIACIÓN AL PATINAJE
	SCOOTERRA / SCOOTER
	SKATEBOARD-EN HASTAPENA I. / C. INICIACIÓN AL SKATEBOARD
	ROLLER FREESTYLE IRRISTAKETAKO HASTAPENA / C. INICIACIÓN PATINAJE ROLLER FREESTYLE
	FREESTYLE SLALOM IRRISTAKETAKO HASTAPENA / C. INICIACIÓN PATINAJE FREESTYLE SLALOM
	GURPIL-LERROKO PATINAJE ARTISTIKOA / PATINAJE ARTÍSTICO EN LÍNEA
PIRAGUISMOA / PIRAGÜISMO	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
SURFA / SURF	HASTAPEN I. SURFA ETA BODYBOARDA / C. INICIACIÓN AL SURF Y AL BODYBOARD
TAEKWONDOA / TAEKWONDO	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
MAHAI TENISA / TENIS DE MESA	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
TXIRRINDULARITZA / CICLISMO	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN
URPEKO JARDUERAK / ACT. SUBACÚATICAS	URPEKARITZA HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN AL BUCEO
XAKEA / AJEDREZ	HASTAPEN I. / C. INICIACIÓN



Eskabideak ondorengo webaren bidez aurkeztuko dira:

— www.bizkaia.eus/eskolakirola

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean kirolez arduratzen den Zerbitzuan (Bilboko Rekalde zumarkalea 30-1., astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era) edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira. Kirol etxean laguntza jaso ahalko da halaber (Martin Barua Picaza kalea, 27 Bilbo-48003).

Bitarteko informatikorik ez duen pertsona orok, Kirol Etxean (Martin Barua Picaza, 27, Bilbo) horretarako dauden ordenagailuak erabil ditzake.

Izen-ematea behar bezala egin beharko da (gutxieneko kirolari kopurua, kirol ardura-duna, posta-helbide elektronikoak...), baliozkotzat eman ahal izateko.

Hastapen ikastaro bakoitza behin bakarrik egin ahal izango du kirolari bakoitzak bere eskola epealdian.

Kirol-diziplina jakin bateko lehiaketa-jardueretan izena emanda dauden kirolariek ezin izango dute parte hartu diziplina horretako hastapen-ikastaroetan.

Epeak federazioen plangintzaren arabera aldatzen direnez, ikastaroetan izena emateko epeak kontsultagai jarriko dira Eskola Kiroleko webgunean:

— www.bizkaia.eus/eskolakirola

Eskabideak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, hamar (10) eguneko epea emango zaio erakunde interesdunari, egin dituen akatsak zuzendu edo dagokion dokumentazioa aurkez dezan, eta, horrekin batera, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu, ebazpena eman, eta atzera egindakotzat joko dutela, eta artxibatu egingo dutela bere eskabidea.

2. *Heziki: kirol hastapenak*

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat jarduera proposatzen ditu lurralde historikoko eskola-umeei kirolaren munduan hasteko aukera emateko.

Benjaminurreko kategorian, Heziki kirol jarduera soilik eskaintzen da.

Heziki Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako eskola-umeentzat bereziki diseinatu-tako jarduera da. Jarduera honen bitartez, umeek trebetasun motorrak garatzea sustatu nahi da, haien ekintzen kudeaketa autonomia ahalbidetzeko, eta etorkizunean egin nahi dituzten kirolak ikasteko prozesuan proposatzen zaien edozein ekintza motor egiteko gai izan daitezen, lortu beharreko gaitasun-maila edozein dela ere (parte-hartzea eta/edo errendimendua). Egin beharreko ekintzak gustura egitea ahalbidetzen duen giroan, kirola eta jarduera fisikoa egiteko zaletasuna sustatzeko.

Eskabideak ondorengo webaren bidez aurkeztuko dira:

— www.bizkaia.eus/eskolakirola

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean kirolez arduratzen den Zerbitzuan (Bilboko Rekalde zumarkalea 30-1., astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era) edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira. Kirol etxean laguntza jaso ahalko da halaber (Martin Barua Picaza kalea, 27, Bilbo-48003).

Bitarteko informatikorik ez duen pertsona orok, Kirol Etxean (Martin Barua Picaza, 27, Bilbo) horretarako dauden ordenagailuak erabil ditzake.

Izen-ematea behar bezala egin beharko da (gutxieneko kirolari kopurua, kirol ardura-duna, posta-helbide elektronikoak...), baliozkotzat eman ahal izateko.

Eskabideak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, hamar (10) eguneko epea emango zaio erakunde interesdunari, egin dituen akatsak zuzendu edo dagokion dokumentazioa aurkez dezan, eta, horrekin batera, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu,



ebazpena eman, eta atzera egindakotzat joko dutela, eta artxibatu egingo dutela bere eskabidea.

Izena lehen aldiz ematen duten erakunde guztiei material hau emango zaie, doan:

- Bi urterako programa metodologikoa.
- Eskubaloiko/areto-futboleko atea egokitzeko 2 elementu eta ate eramangarria.
- Heziki baloiak (Foam).

Izena emateko epea 2023ko irailaren 1etik urriaren 23ra izango da.

Kirolean Hasteko jarduera bat denez, hiru kontzentrazio egingo dira (hiruhileko bakoitzean bat). Kontzentrazio horietan, kirolariei erakutsiko zaie zer den lehiaketako jardunaldi bat benjamin kategoriatik gora.

Hezikin parte-hartzea amaitu ondoren, Kirol Anitzeko lehiaketa-modalitatean inskribatzea gomendatzen da, jarduera horretan hainbat kirolelan hasteko aukera izango baitute kirolariek, beren ezaugarri eta/edo interesetara gehien egokitzen dena aukeratu ahal izateko.

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, haien udal erakunde autonomoek edo kirolen udal fundazio publikoek Udal Mailako Kirol Anitzeko Jarduera antolatu ahal izango dute, udalerriko benjamin kategoriako eskola-umeentzat, Bizkaiko Foru Aldundian kirolaz arduratzen den zerbitzuaren baimena lortu ondoren.

Argibide gehiago:

- www.bizkaia.eus/eskolakirola

IV.TITULUA

BESTELAKO JARDUERAK

22. oinarria. — *Aisialdiko jarduerak*

Hona hemen 2023/2024 denboraldirako deitu diren aisialdiko jarduerak:

- Eskia: asteburuko eta gabonetako irteerak.
- Izotz-patinajeko irteerak.
- Mendiko irteerak.
- Surf jaiak.
- Kirol adaptatua: Kirol anitza eta kirol diziplina desberdinak ezagutzeko ate irekiak.

Eskabideak ondorengo webaren bidez aurkeztuko dira:

- www.bizkaia.eus/eskolakirola

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean kirolez arduratzen den Zerbitzuan (Bilboko Rekalde zumarkalea 30-1., astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era) edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira. Kirol etxean laguntza jaso ahalko da halaber (Martin Barua Picaza kalea, 27 Bilbo-48003).

Bitarteko informatikorik ez duen pertsona orok, Kirol Etxean (Martin Barua Picaza, 27, Bilbo) horretarako dauden ordenagailuak erabil ditzake.

Izen-ematea behar bezala egin beharko da (gutxieneko kirolari kopurua, kirol ardura-duna, posta-helbide elektronikoak...), baliozkotzat eman ahal izateko.

Epeak federazioen plangintzaren arabera aldatzen direnez, jarduera bakoitzerako izena emateko epeak kontsultagai jarriko dira Eskola Kiroleko webgunean:

- www.bizkaia.eus/eskolakirola

Eskabideak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, hamar (10) eguneko epea emango zaio erakunde interesdunari, egin dituen akatsak zuzendu edo dagokion dokumentazioa aurkez dezan, eta, horrekin batera, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu,



ebazpena eman, eta atzera egindakotzat joko dutela, eta artxibatu egingo dutela bere eskabidea.

Kirol modalitate bakoitzak Bizkaian duen federazioan emango dute dagokion kirolari buruzko informazioa.

Federazioa Federación	Jarduera Actividad	Erakunde Parte-Hartzailea Entidad Particip.		Helbidea Dirección	Tel. zk. N.º tño
		Ikastetxea Centro	Taldea Club		
KIROL ADAPTATUA DEPORTE ADAPTADO	KIROL ANITZA / MULTIDEPORTE ATE IREKIEN JARDUNALDIAK JORNADAS DE PUERTAS ABIERTAS	I/C	T/CB	Martin Barua Pi- caza, 27 (Bilbao)	944 413 181
NEGUKO KIROLAK DEPORTES DE INVIERNO	ESKIA: ASTEBURUKO ETA GABONETAKO IRTEERAK ESQUÍ: SALIDAS FIN DE SEMANA Y NAVIDAD	I/C	T/CB	Martin Barua Pi- caza, 27 (Bilbao)	944 411 063
	IZOTZ GAINEKO PATINAJERAKO IRTEERAK SALIDAS PATINAJE HIELO				
MENDIA MONTAÑA	IRTEERAK SALIDAS	I/C	T/CB	Martin Barua Pi- caza, 27 (Bilbao)	944 431 734
SURFA SURF	SURFJAIK	I/C	T/CB	Martin Barua Pi- caza, 27(Bilbao)	665 268 582 944 410 900